

Satorralaiak abuztuak 31 astearten Donostiako metroaren aurkako martxa deitu

SATORRALAIA :: 25/08/2021

Metroaren tuneleko zulaketa-lanak Easo Plazatik Kontxara abuztu betean berrabiatu dituztela salatzen dugu

[Euskara]

Satorralaiak abuztuak 31 astearten Donostiako metroaren aurkako martxa deitu du eusko jaurlaritzaren miramar-eko gobernu kontseilura:

Metroaren tuneleko zulaketa-lanak Easo Plazatik Kontxara abuztu betean berrabiatu dituztela salatzen dugu

Satorralaia bizilagunen mugimenduak **abuztuak 31 asteartean** Donostiako Metroaren aurkako protesta-martxa deitu du Eusko Jaurlaritzaren Miramar-eko gobernu kontseilura. Martxa **goizeko 10:00etan Kontxako Erlojuetatik** abiatuko da, eta Mirakontxako pasealekutik igo ondoren, **10:30etan protesta zaratatsua** egingo dugu Miramar-eko aparkalekuan, herritar askoren iritziz erabat behargabekoa, kaltegarria eta xahuketa ekonomiko itzela den obra hori gelditu dezatela berriro aldarrikatzeko.

Satorralaiak gogor salatzen du ETS-ek eta obrako enpresa adjudikatzailerik abuztu betean berriz abiatu dituztela Easo Plazatik Kontxara egin asmo duten tunelaren zulaketa-lanak. Obra urtebete baino gehiago geldiaraztera behartu duten gertakari larriak, gainkostuak, eta tunela zulatzeak hirigunean eragingo dituen arriskuez proiektuan egiten diren ohartarazpen latzak kontuan hartuta, azpiegitura-lan hori egitea astakeria bat da. Kontxako hondartzaren lurpean kalte larriak eragin direla egiaztatu du bestalde Itsasertzetako Zerbitzuak. Hala ere, tunelaren lanak Urbietako kaleko lurpeko frontean berrartu dituzte --Amarako eskolen eta Koldo Mitxelena Kulturgunearen artean.

Satorralaiaren ustez, Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udal Gobernua gezurretan aritu direla bistakoa da gure hirian Metroaren eraikuntzak dituen inpaktuen, koste errealek eta helburuen inguruan. Gehiegikeria hau Donostian sustatzen ari den hiri-ereduaren eta turismoan oinarritutako eredu ekonomikoaren ondorioa dugu. Horrek espekulazioa eta hirigunearen merkantilizazioa areagotzea, lan-baldintzen prekarizazioa, eta inbertsoreen interes ekonomikoak bizilagunen eta langileen beharren gainetik jartzea dakar berekin. Ez alperrik, hiri-ereduari buruz eta Donostiarako garraio publikoko sistema egokienari buruz inongo partehartze eta eztabaida sozialik gabe inposatu dute Metroa.

Hori denagatik, datorren asteartean Miramar-eko martxara biltzeko dei egiten dugu "JAURLARITZA ENTZUN: METROA GELDITU! BEHARGABEKOA - XAHUKETA - EROKERIA" lemapean.

Satorralaia bizilagunen mugimendua

[Castellano]

SATORRALAIA CONVOCA EL MARTES 31 DE AGOSTO UNA MARCHA CONTRA EL METRO AL CONSEJO DEL GOBIERNO VASCO EN MIRAMAR:

Denuncia que han reanudado la perforación del túnel entre la Plaza Easo y La Concha en pleno mes de agosto

El movimiento vecinal Satorralaia convoca el **martes 31 de agosto** una marcha de protesta para manifestar el rechazo a la construcción de la pasante de Metro en Donostia ante el consejo del Gobierno Vasco en Miramar. La marcha partirá **a las 10'00h desde los Relojos de La Concha** y se dirigirá por el Paseo de Miraconcha hasta el Palacio de Miramar, donde **a las 10'30h realizaremos una ruidosa concentración** en el aparcamiento para volver a exigir la paralización de esta obra considerada por una gran parte de la ciudadanía como una insensatez y un derroche económico absolutamente innecesario y perjudicial.

Satorralaia denuncia que ETS y las nuevas empresas adjudicatarias de la obra han reanudado en pleno mes de agosto la perforación del túnel proyectado entre la Plaza Easo y La Concha. A la vista de los graves sucesos y sobrecostes que han obligado a paralizar la obra durante más de un año, así como las alarmantes advertencias presentes en el proyecto sobre los riesgos que conlleva su ejecución para el espacio urbano, manifestamos que la construcción de esta infraestructura es una insensatez. El Servicio de Costas ha constatado por otra parte las graves afecciones provocadas en el subsuelo de la playa de La Concha. A pesar de ello, han retomado las obras del túnel desde el frente situado bajo la calle Urbieta -a la altura de las escuelas de Amara y del Centro Koldo Mitxelena.

Para Satorralaia, es evidente que el Gobierno Vasco y el Gobierno municipal de Donostia han mentido deliberadamente sobre los impactos, los costes reales y la finalidad de la construcción de la pasante de Metro. Este despropósito es consecuencia del modelo económico y de ciudad centrado en el turismo que se está fomentando en Donostia. Lo cual conlleva una creciente especulación y mercantilización urbana, la precarización de las condiciones laborales, y la prevalencia del interés económico de los inversores por encima de las necesidades de los/as vecinos y trabajadores. No en vano, la pasante de Metro ha sido impuesta sin ninguna participación ciudadana ni debate social sobre el modelo de ciudad y el sistema de transporte público más adecuado para Donostia.

Por todo ello, hacemos un llamamiento a participar en la marcha del martes 31 bajo el lema "JAURLARITZA ENTZUN: METROA GELDITU! *INNECESARIO - DERROCHE- INSENSATO*".

Movimiento vecinal Satorralaia

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/satorralaiak-abuztuak-31-astearten-donostiako